

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko irailaren 4a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Araitz • Balarako toponimia biltzen duen liburua argitaratu dute.

Jesus Perez Boregan • «Gutxiengoaren estalpea da kultura».

Garralda



• LUIS AZANZA

1898: suteak eraman zuen gogoratuz

Suak eraman zuen Garra 1898ko irailaren 5ean. Garrek Aezkoako herria suntsiturik utzi zuten, eta herritarrak aterperik gabe. Amesgaizto hura ekarri du gogora Pablo Mandazen Fundazioak kaleratu berri duen liburuak. Xamar idazleak egina da, eta berak nahiz gainerako garraldarrek bihar gogoratuko dute orduan gertatutakoa.

Araitz ●

Bailarako toponimia biltzen duen liburua argitaratu dute

Nabarmena da denboraren poderioz lekuen izenak nola aldatu diren

Nafarroako Toponimia eta Mapagintza izeneko sailaren barruan, orain, Araitz-Beteluko toponimoak bildu dituzte. Aipatu leku eta toki horiek kokatzeko baliagarriak diren mapak ere badira liburuan.

«**A**KANBURREN EGON NAIZ», dio amonak. «Baina non da Akanbur?», esaten dio bilobak. «Aldairen ondoan», erantzuten dio amonak. «Badakizu non dagoen Aldai?». Horrelakoak behin baino gehiagotan gerta ohi dira. Amonatxok erabiltzen dituen leku izenak, bilobatxoak askotan ezezagunak ditu, edo bestela, denboraren poderioz, beste izen batez ezagutzen du bilobak toki berbera. Hori ekiditeko asmoa du, besteak beste, kalera-tu berri den liburuak. Izan ere, 1860. urtean egindako nomenklaturaren aitoria, 392 eraikin eta 2301 biztanle zituen Araitzek, sei herrietan eta hainbat baserritan banatuak: Akanbur, Atxotxondo,



Gaur Araxes deitzen den erreka lehen beste izen ugari zituen: Beteluko erreka, Araitz-erreka, Narbaizu...

● URKO ARISTI

Apoga, Argisondo, Arraztioburua, Azkue, Burdingurutz, Illarazu, Iruartetxeta, Mekola, Medioneko-egia, Negarrola, Pilluaga, Uba eta Zubiria. XX. mendean, ordea, biztanleriak behera egin du pixkanaka pixkanaka, eta 731 lagun baino ez ziren 1981ean. Jende kopuruak behera egin ahala, gutxitu egin dira aspaldian erabiltzen ziren izenak gogoan dituztenak ere. Horiek memoria freskatu ahal izateko, eta sekulan entzun ez di-

tuztenek izen horiek ezagutzeko aukera dute, orain. Nafarroako Toponimia eta Mapagintza sailaren XLVI. aleari esker.

Nafarroa bide urratzailea izan da, nonbait, mapagintzan. Baina, bertako hizkuntz aniztasunaren ondorioz, galera-hondamenik ere izan da toponimian. Nafarroako Gobernuak, hori ikusirik, ondare hori zaintzeko asmoz, akordio bat sinatu zuen Trabajos Catastrales S.A.-rekin. Horren ostean, Jose

Maria Jimeno Jurio historialariak zuzendutako ikerle talde bat ibili zen, han eta hemen, izen hauen nondik norakoak bilduz. Horretarako, herri bakoitzean bizi ziren herritarrekin aritu ziren solasean. Solasaldi horien emaitza, orain, paperean islatu dute. Toki izenak bere udalaren nahiz kontzejuaren arabera sailkatu daude, eta populazio gune bakoitzaren barrunean hurrenkera alfabetikoz. Toki izen normalizatua

da sarrera bakoitzaren burua, eta ondoren, zein dokumentutan aurkitu duten, toponimoari zuzenean dagokion informazioa, gaurko herri aho-kera eta mapako kokaera bezelako xehetasunak ditu ondoren.

Bitxikeria ugari topa daiteke 250 orrialdeko liburu honetan. Esate baterako, Araitz-Beteluko bailara zeharkatzen duen ibaiaren, Araxesen izenaren jatorria azaltzen da. 1968ko ikerketa batean Jesus Elozegi historialariak zioenez, garai haietan Araitz-Betelun inork ez zion Araxes deitzen bailara zeharkatzen zuen ibaiari. Azpirotz-erreka, Beteluko erreka, Araitz-erreka eta Narbaizu-erreka bezelakoak erabiltzen

ziren horretarako. Kartografiaren eta errepede bazterreko seinalizazioaren ondorioz, ordea, 1992an denek Araxes deitzen zioten ibaiari. Dena den, Esteban de Garibay y Zamalloak 1571n idatzitako liburu batean ageri da Araxes izena.

Bestalde, aipagarria da pertsonen izen nagusiak direla, gehinetan, etxearen izena erabiltzeko osatzen direnak, eta lur saillek ere badutela loturarik jabeen etxearen izenarekin.

→ Urko Aristi

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Mendebala ibili da abuztuko bazkalondoetan. Ordu eta erdiz (batzuetan gutxiago) urdin bizia zen zerua ekaitz itxurako bihurtzen zen. Lehen euri tantek sutauts usaina biziagotzen zuten, eta hodeiartean zaldunen soslaiak begizatzen genituen.

Zaldun horiek, urrundik begiratuta, sinesteziak dira. Hurreratzen direnean ikaragarri zaila zaie hitzik ateratzea, asteak, hilabeteak eman baitituzte mutu. Gezurak asmatuz has litezke, baina sobera ongi dakite zer lanak izaten diren istorioak zuzentzen, eta esaldi motzetara eta, sarri, sententzietara jotzen dute, gorderik behar duenak gorderik jarrai dezan. Beste zaldun bat, emakume bat, ume bat etorri arte jarraituko dute isil-isilik, geldi-geldirik, neke zahar batek jota bai-leude.

Sartalderantz

Ume zahartuak dira, errurik gabeko bizilagunik ez dagoen lurralde batean. Sartaldean jaio dena ia lehen argia ikustearekin batera dago haratago joatera beharturik. Sartaldeak beti du beste sartalde bat eta urrats bakoitzak paradistik aldentzen ditu.

Pantaila txikiagotu den neurrian publikoa bakandu egin da. Gutxi garestia ematen du, bakar-tuak gaudela gure amets zahar horrekin bueltatzen. Emakumeak aspaldi urundu ziren: «Neskak ergelak dira eta John Wayne nazkantea». Mundu berri-berrikoek nahikoa lan daukate gerra jostailuen kontrako kanpainekin. Haurrengan dut itxaropena, beren power rangerrak hartuta ibiltzen baitira oraindik eta sartaldearekin egiten dute amets. Nik bezala. Oraindik ere cowboy izan nahi dut. Cowboy eta ez behizain.

Behizain eta behizale orok torero izan nahi du.

Eta toreroak plaza desiratzen du. «Artéa», esaten dute. «Atletismoa», ulertzen dut nik. Cowboy-a argiago ikusi nahian abiatzen da, sosegua behar du, zalantzak uxatu nahi lituzke. Ordea, begiak urrun horietara eginik, eremu mugagabeekin egiten du topo, eta ordokiko belar izpi bakoitzean galdera bat aurkitzen du. Hori da bere kondena.

Jeneroa da batzuen ustez. Ahots oso zahar batek kondatutako istorio bat baino ez, esanen nuke nik. Entzun, ikasi eta errepikatzen dugun lehenengo istorioa. Gurean behizain eta ardizain ugari izan da, baina gutxitan bilakatu dira cowboy. Pablo Antofianak eta beste batzuk erakutsi digute etxetik irten gabe egin daitekeela. Jendea behar da. Jantzi itzazu nahi duzun bezala, eraman nahi duzun lekura. Ezinbestekoa? Zama bat. Zama ikustezin eta eternala.



urda
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Tobias, Marisol eta ni neu

Ser Irratikatean egiten duten tertulia nire hartz Tobias eta nire itsas-zakur Marisolekin entzuten dut gauero. Bai. Tertulianoak jada ahotsengatik ezagutzen ditugu eta lokutoreak «gabon» esaten duenean eta besteak «gabon» erantzuten duenean Tobias, Marisol eta hirurok oihukatzen dugu: «Carlos Carnicero!». Carlos Carnicero baldin bada noski, edo eta «Rosa María!». Rosa María baldin bada noski. Hau erraxagoa da emakume bakarra delako, noski. Gero adi-adi jarraitzen ditugu esaten dituzten gauza guztiak. Eta gauza asko eta asko esaten dituzte! Adibidez, esaten dute Euskadin ez dagoela askatasunik, bandalo faxista batzuegatik, eta askotan Iruñea ere aipatzen dute, eta esaten dute: «Pamplonan adibidez hau eta beste gertatu da», eta Tobias, Marisol eta hirurok asko poztzen gara Iruñea aipatzen dutenean, zeren Iruñea gure hiria da! Orduan oihukatzen dugu «Pamplona! Pamplona! Pamplona!» eta, klaro, tertuliaren zati batzuk ez ditugu entzuten mementu hortan, baina berdin dio, zeren guri asko gustatzen zaigu gure hiriaren izena irratian entzutea, eta «Aita! Aita!» deitzen diot aitari, baina berak ezetz esaten dit, ez duela entzun nahi. Ni aldi horrelakoetan hunkitu egiten naiz, eta Cola-caoren tanta batzuk eta guzti erortzen zaizkit lurrera. Hunkitzen naizelako, klaro. Tertulianoek den-dena dakite. Berdin hitz egiten dute burtsaz edo Txinaz, benetan: behin Txinaz hitz egin zuten pillo bat! «Hango uholdeak dira honengatik eta honengatik», esaten zuten, edo ilargiara eramanez duten espazio-untziak edo eskubaloiaz! Dira la letxe. Baina burtsaz hitz egiten dutenean Marisol, Tobias eta hirurok tristetu egiten gara, bada-kigulako Iruñea hitza ez dela aterako. Gutaz bakarrik bandaloez edo lurrikarez hitz egiten dutenean oroitzen dira. «Lurrikara Nueva Delhin, telefonoaren bestaldean moja nafar bat dugu». «Nafarroa! Nafarroa! Nafarroa!», oihukatzen dugu orduan Tobias, Marisol eta hirurok. Nire aitak esaten du horrelako saiogengatik sekula santan izan ez den independentista bihurtzen ari dela. Eta beldur dela hainbeste zabor entzunda ez ote naizen ni bera baino erradikalagoa aterako. Horrelakoetan begi haundi eta borobilekin begiratzen diogu Marisol, Tobias eta hirurok, eta ixil-ixilik bukatzen dugu Cola-caoa, eta ohera. ●

Otsagi

Festak ospatuko dituzte astelehenetik aurrera

FESTAK OSPATUKO DITUZTE ASTELEHENETIK aitzina Otsagin. Jaiak datorren larunbata arte, hilaren 12a iraunen du, eta otsagiarrek ez ezik, bertara hurbiltzen direnek ere izanen dute non gozatu eta zer ikusi. Astelehenetan 13:00etan udal-letxetik botako den suziariarekin hasiko da festa, eta arratsaldean herriko dantzarien saioa izanen da Blankoa enparantzan eta ondoren dantzaldia Iruña Band taldearekin. Asteartea, Muskilda ama birjinaren omenez egiten diren jaien egun handia izanen da. Urtego legez, eguerdiko 12:00etan, Basilikan ospatuko den meza Otsagiko dantzariak bertako makildantzak dantzatzeko dituzte. Arratsaldean berriro ariko dira dantzariak, Bezperen ondoren, 18:00etan. Eguna 21:30etan Francisco Rivelles taldeak eskainiko duen dantzaldiarekin bukatuko da. Asteazkena, berriz, haurren eguna izanen da. Txikien txupinazoa botako da 13:00etan eta buruhandiak eta erraldoiak herrian barna ibiliko dira. Arratsaldean ere izanen dute umeez denbora non pasatu. Kulki taldeak haur jokoetan jostatzeko aukera eskainiko du 17:30etan eta bi ordu beranduago txokolate jatea izanen dute Blankoa plazan. Zezen suzkoa ere hurbilduko da Otsagira, gaueko hamarrak aldera. Hurrek ez ezik, pilotazaleek ere izanen dute non gozatu. Herriko frontoian pilota partidu profesionalak jokatu dira 18:30etan. Urionaguenaga eta Balerdi Agirre eta Rairen aurka ariko dira lehen nor-



MIKEL SAIZ

Iturri berria

Iturri berria inauguratu berri dute Iruñetik pauso batera dagoen Berriogoiti herrian. Iturria, kolore bizi eta deigarrietan margotua, Joxe Ulibarrena eskultore nafarrak egin du eta *Iturri berri* izenez bataiatu dute. Iruñetik Markalain aldeko errepidea hartuta, herrian eskuinetara kokatuta dagoen lorategi txiki batean ezarri dute lau piezako iturria. Ulibarrenak egin duen lanak, harrizko iturriaz gain, haren ilara jarraitzen duten beste hiru pieza jarri ditu, goitik pikodunak eta behealdetik irekiak. Egilearen esanetan, osasuna, jakinduria eta senidetasuna adierazten ditu lanak. «Gure herria mugitu dituen ezaugarriak, hain zuzen», azaldu du. Beraz, aurrerantzean Berriogoitiko biztanleek, orain arteko ohiko iturriaz gain, *Iturri berria* izanen dute, askozaz ere deigarriagoa, behintzat egarria asetzeko eta zintzurra freskatzeko.

gehiagokan, eta bigarrenean, aurrez aurre izanen dira Nago-re eta Arretxe eta Salaberria eta Armendariz. Ostegunak, ostiralak eta larunbata ere ekarriko dute zer eginik. Haurren lekukoa emakumeek hartuko dute eta euren eguna ospatuko dute datorren ostegunean. Besteak beste, herri bazkaria eta Alaitz eta Maider trikitilarien kontzertua izanen dute. Eguna Welcome taldearen emanaldiarekin bukatuko dute. Festen azken bi egunetan, aipatzekoa da larunbatean egingen den herri kirol saioa. 18:00etatik aurrera aizkolaria, harrijasotzaileak eta lasto altxatzaileak ikusteko aukera izanen da.

→ Uxue Zabaleta

Iruñea

Argazki lehiaketa egingen da bihar

Iruñeko UDALAK HIRIAREN ETA hura zeharkatzen duen Arga ibaiaren inguruko argazki lehiaketa antolatu du biharko. Hasiera batean gaur egitekoa bazen ere, azkenean bihar izanen da, goizeko bederatzietatik aitzina. Argazkigintzan iaioa edo besterik gabe zalea denak badu bere trebezia erakusteko aukera. Lehiaketa 9:00etan hasi eta 14:00etan bukatuko da. Denbora tarte horretan

partehartzaileak Iruñeko edozein bazter jaso ahal izanen du karretean. Lehiaketan aritu nahi duenak Jus La Rocha kultura zentroan egon beharko du 9:00etarako. Han karreteak eta lehiaketako gomendioak jasoko ditu. Txapelketak hiru sari ditu: 30.000 pezeta lehenak; 25.000 pezeta bigarrenak; eta beste 20.000 hirugarrenak. Partehartzaileen lan guztiak Jus La Rocharen egoitzan zabalduko den erakusketan ikusteko aukera izanen da irailaren 15tik 30era. Parte hartu nahi duenak Iturruma, Jus La Rocha edo Navarrerria zentroetatik pasatu behar du izena emateko, 10:00etatik 14:00etara.

→ Uxue Zabaleta

herri aldizkariak

Asier Azpilikueta

Artikutza, Trebiño forala

Abuztuan oporretan izan ondoren, irailaren 10ean karrikaratuko dute **Ttipi-Ttapa**-koek 237. zenbakia. Aldizkari zuzendari Altor Arozenak *Nafarkaria*-ri aurreratu zionez, joan den ostiralean Artikutzan ospatu zen San Agustin egunari buruzkoa da erreportaia nagusia. Artikutza Goizuetako lurraldean dago, baina berez Donostiako udaleko finka bat da, 1.919an erosia. San Agustin eguna da jende guziarendako irekirik dagoen egun bakarra. Gainerako egunetan baimena eskatu behar da Donostiako herriko etxean, eta egunean hirurogei baimen besterik ez dituzte ematen. Ostiralean Lesaka, Goizueta,

Arantza eta Zubietatik hurbildu zen jendea, baita Gipuzkoa aldetik ere. Egund berezia izan zen. Eta guzi hau aitzakia harturik, Artikutzaren historia kontatzen digute **Ttipi-Ttapa**-koek. «Egun hamabost lagun bizi dira Artikutzan bertan eta horiek aritzen dira hor inguruan dagoen basoa zaintzen», erraten du Arozenak. «Jaiotze agiriak eta antzekoak Goizuetan dituzte, baina Donostiako udalak kontratatzen ditu. Horrelako kasu bitxi bat da, Trebiñoren antzekoa baina maila txikiago batean».

Florentino Goñiri, Oronoz-Mugairiko alkateari, eginiko elkarrizketa ere aurkituko

dugu hurrengo zenbakian. Elkarrizketa horretan, Goñik aipatzen du batzarrean erabaki zutela babeseko etxebizitzak egitea eta Nafarroako Gobernuak asmo horiek nolabait zapuztu dituela etxebizitzak zibilei ematean.

Beste aldetik, irailaren 20an Pilotaren Eguna ospatuko da Senperen. Han Miguel Gallastegi pilotaria omenduko dute eta guzi horren harira zortzi orrialdeko gehigarria argitaratuko du **Ttipi-Ttapa**-k, Gallastegiri berari eginiko elkarrizketa bat eta Senpereko pilotaren historiari buruzko informazioa barne.

Suak eramandako 1898ko Garralda

Aezkoako herria suntsitu zuen sutea gogoratzen duen liburua kaleratu du Pablo Mandazen Fundazioak

Suak eraman zuen 1898ko irailaren 5ean Garralda. Galdek Aezkoako herria suntsiturik utzi zuten, eta herritarrak aterperik gabe. Amesgaizto hura ekarri du gogora Pablo Mandazen Fundazioak kaleratu berri duen liburua. Xamar idazleak eginga da, eta berak nahiz gainerako garraidarrek bihar gogoratuko dute orduan gertatutakoa.

Gizakia suaren inguruan sortu, eraiki eta garatu izan bada ere, askotan berak edo

naturak sortutako galdak suntsipena ekar lezake. Euskal Herriko etxe gehienetan bezala, su bezainbat etxe ziren Garraldan ezbeharrak gertatu zenean. Hangoa da *Etxeak sua etxeak hautsez estali* erranirua ere, sua erabat itzaltzen ez zela utzi behar adierazten duena. Baina, pizgarri den moduan, suntsizale ere izan daitekeela frogatu da maiz suak, Garraldan duela mende bat gertatutakoa adibide. Bihar ehun urte betetzen direla, 1898ko irailaren 5ean, Aezkoako bailaran dagoen herria suaren galdek kasik erabat kixkali zuten. Lehorte handi baten itzalean gertatu zen sutea. Urtean zehar ez zuen euri askorik bota eta lurra idor zegoen. Herriak 543 biztanle zituen eta herritarrak larrazkeneko lanetan ari ziren. Sua Kapitana etxean piztu zen eta handik herri osora zabaldur. Sua erraz gailendu zen, zeren eta garai hartan etxeak, harritzko gorputza salbu, estalpea, habeak eta zinak haritz egurrezkoak baitzituzten. Hori aski ez zela, ganbarak beterik zeuden udan jasotako belar eta lastoarekin. Beraz, garrek segituan hartu zuten indarra. Gertaera hori bildu du *Garralda, 1898* liburuan Xamar idazle eta irakasleak. Idatzian, orduan gertatutakoak gain, garraidarren eguneroko bizitza, ezbeharrak ekarritako ondorio latzak eta inguruko herrietan ez ezik Euskal Herri osoan izandako oihartzuna kontatzen du. Egileak —herriko Xamarrena etxeak bizilagunak— gogoratu duen

Gaur egun Garraldak etxe sendoak eta handiak ditu.

• LUIS AZANZA

nez, «Garraldako historian izan den menderik gogorrena XIX.a izan zen dudarik gabe: armadak, eritasunak, gerra, miseria... sofrikario latza eta suteak egoera negargarrian utzi zituen garraidarrek». Gainera, egileak liburuaren orrietan behin baino gehiago aipatu duenez, «suteak herriaren ondorena aldatu zuen. Mende berriak ere aldatu izanaren zuten baina gisa batean edo bestean ezin dugu jakin nolakoa izan ote zen Garralda sute hori gabe». Horrexegatik gogoratu nahi izan du hura Xamarrek, urteurrenaren atarian «errepoki begiratzeko gauza zelako».

Herriko Pablo Mandazen Fundazioaren mandatu harturik, ibeltzean hasi zuen lana, eta biharko mendeurrena gogoratzeko eginen diren ekitaldien barruan aurkeztuko du. Hiru iturri erabili ditu informazioa jasotzeko eta liburua

janzteko: garraidarren familia oroimena, Herriko Etxearen artxiboa eta garai hartako egunkariak: *El Pensamiento Navarro*, *El Eco de Navarra*, *Diario de Navarra*, eta *Euskalduna* aldizkaria.

Orduko ezbeharrak nozitu izan zuen inor bizirik ez dagoen arren, herriko zaharrek ongi aski ezagutzen dituzte suteak ekarritako urte gogorrak. Beste asko goseak eraman zituen edo beharrak bultzatuta Ameriketara, familia laguntzeko sos bila. 1905ean hasi zen emigrazioa Argentina eta Kaliforniako mesetan. Datuak ikusi besterik ez dago, 1905 eta 1910 urteen artean 99 garraidar joan baitziren hara.

Birreraikitze luzea Toki lasaia da Garralda herria, Aezkoako Bailaran. Gauzak asko aurre-

ratu diren arren, duela mende bat bezala nekazaritza, abeltzaintza eta basoa dira garraidar gehienek sustengu, nahiz eta azken urteotan turismoa ere sartzen ari den. Suteak herriaren ekarritako ondorioak bizi izan zituen Matias Iriarte garraidarra bere etxea duen Minondoinea-ko atariko eserlekuaren aurkitu du. Matias 84 urte ditu, eta, aita zena bezala, nekazaria eta abeltzaina izan da beti. Eguzkiaren goxotasune-




Garraldako herria 1898ko sutea bainago. • ARTXIBOKOA

an, ordukoa gogoratu du, etxean askotan entzun baitu harenik. «Hamabost urte beranduago jaio nintzen baina sute haren ondorioak oso luzeak izan ziren. Herria suntsitua gelditu zen. 1899an herri guztiko etxeei estalkia eman zitzaion arren, etxeak osatzen lanak izan ziren». Argentinara lanera joan zen Antonio Arostegi herritarrak irekitako harpidetzan lortutako diruarekin etxe guztietako teilatuak berregin zituen. «Oso bere egin zuen gertatutakoa, eta berak ordaindu zituen teilatu guztietako teilak», azaldu du Matias apal. Ondoko herrietatik eta Euskal Herriko beste tokitetatik iritsitako laguntzak egoera latza gainditzeko zerbait balio izan zuen arren, garraidarrek asko ikusi zuten normaltasunera itzuli arte. «Etxeei teilatua eman zitzaion baina barrualdeak hutsik zeuden erabat. Gogoan dut, oraindik ere, 1924an eta 1925ean gurasoek latzak ikusi zituztela etxea lehengoratzeko. Behoko solairutik goiko teilak ikusten zen, pentsa», dio pentsakor. «Suteaz geroztik oso pobre bizi ginen eta etxeak hutsak zeuden. Gurasoek 1925ean bukatu zuten oholitza jartzeaz, gaineratu du. Etxeak hutsik zeuden. Normaltasunera iristeko 27 urte behar izan genuen, oholitza jartzearen ondotik logelak egin baitziren», gaineratu du. Minondoinea, Garraldako etxe gehienak bezala, hiru solairu ditu, eta, leheneratzeak lanak eman zizkien arren, garai haiez badu oroitzen onik ere Matias. «Txikitatik etxe guztia genuen jostatzeko, eta oihartzun ginen gurasoek pasatutako beharraz», dio irribarrez.



Matias Iriarte

«Hamabost geroago jaio nintzen, eta sute haren ondorioak luzeak izan ziren. Herria suntsitua gelditu zen. 1899an guztiko etxeei estalkia emaitza izan arren, etxeak osatzen lanak izan ziren»



Garraldak 1898ko irailaren 5eko sutearen ondotik izan den itxura. • ROLDAN / MENA

Aezkeraz eta gaztelaniaz

Garraldako sutearen mendeurrena gogoratzen duen liburua aezkeraz eta gaztelaniaz kaleratu du Mandazen Fundazioak. Egun aezkera herritar gutxi hitz egiten duten arren, garraiko eguneroko hizkuntza euskara zenez mintzaira horretan egin nahi izan du lana Xamarrek. Gainera, lanak ondorena bizi izan zuten helduentzako eta atzetik euskaraz mintzotzeko balio du. Matias izan du aukera liburua irakurtzeko. «Euskaraz alabarekin eta ilobarekin bakarrik mintzatzen banaiz ere, irakurri dudanak ongi gogoratu du hura», azpimarratu du. Xamarren lana, kasik desagertua den aezkera gogoratzeko ez ezik, herriko historia ezagutzeko lanean

beste aurrera pauso bat da. Fundazioak argitaratutako lanaren helburua, Pablo Mandazene berak dioenez, bertako kultura eta historia sustatzeko beste modu bat da lana. «Lan xumea

da, baina elkarlanean arituz gero gauzak aurrera ateratzen direla frogatzen duena», dio Pablok.

Liburua kalean dela, are aitzakia handiagoa izan du garraldarrek bihar mendeurrena ospatzeko. Udarak herriko etxe guztietan banatu ditu, eta laguntza eskaini zuten erakunde guztietan ere bai. Biharko egunerako ospakizun gutxi prestatu badute ere, egun handia izan dena Garraldan. Egurdiako mezearen ondotik, Xamarrek fundazioak kaleratutako liburua aurkeztu eta mintzagai izan du. Ondotik, otordua egiteko tenorea izan du, eta eguna Sakanako tritilariekin bukatuko da.

Garraldak duela ehun urte jazotakoa oroituko duen bitartean, hura gogoan dutenak, euren gurasoek baino etorkizun hobea izan badute ere, herria husten ari dela nabaritu dute. «Bada jendea ballean, gutxi. Garraldan eta Orbaiztan aski poliki baina gero eta gutiago. Gazteak fater dira ikastera edo lanera kanpora. Badira alor onak baina behar da afizioa eta hori gutxi dute», bukatu du Matias.

→ Irene Arrizurieta

Pablo Mandazen

Pablo Mandazen Fundazioko presidentea

«Hemengoan barrenak mugiaraz ditzake»

Pablo Mandazen fundazioko presidentea Garraldan da, irailaren 2ra arte. Gines aita osasuntsu dagoen arren, Ines erizainak noranahi jarraitzen dio, 86 urte ez baitira alferrik joaten.



Zein da La Salle fundazioaren helburua?

Gure filosofia oinarritzen da hezkuntza eta ikerkuntza teknikoan. Gaztea bere lurraldera uztartu nahi badugu, lur hori ezagutu egin behar du. Gure ikerketa zentroek gizakia ikasten dute lehenik, eta gero lurraldea ongi ezagutzeko haren baliabide naturalak zehazten ditugu. Horretarako ditugu hezkuntza zentro teknikoak. Hainbat ikastetxe ditugu Venezuelan baina: antropologiakoa, itsas ikerketakoa, ikerketa hidrologikoa; eta meatzaritza eta nekazaritza.

Asko aldatu da Garralda joan zinenetik?

Hobekiago aurkeztua dago. Asko hobetu dela ez dago ukatzerik. Euskaraz nahi nukeen bezala hitz egin ezin duten arren, euskarak ere aurrera egin duela sumatu dut. Txikitik euskaraz ez zekiten apaizak eta ikasleak ezagutu ditugu. Beste gauza batzuetan okerrera egin du, nolabait. Venezuelako beti esan izan du tokian tokiko baliabideen arabera erakutsi behar dela. Pirinioetako alde honetan, Euskal Herriko beste toki batzuetan gertatzen ez den bezala —han baserria industriarekin uztartu baita—, ez da hori gertatu. Hemen eskolara joaten dira eta ikasten dute herrietatik ateratzen. Inork ez die nekazaritza irakasten edo lur honetatik aterai daitekeena. Badituzu etxe bikainak eta hutsik daude.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Arriskutsua da etorkizunaz

hitz egitea. Baditu aukerak nekazaritza eta abeltzaintza. Saiatu ginen hori bultzatzen iparraldeko artzainek egiten dutena ekarri. Jarri nahi izan genuen artzain kooperatiba bat eta artzain eskola bat sortu, gazteak trebatzeko kooperatibismoan eta integratzeko. Badirudi min egiten diela beste zerbaitek aurrera egitea. Laguntza bat dela ikusi beharrean, gaizki hartu dute askok.

Venezuelan ez bezala, Pablo Mandazen Fundazioak ez du Garraldan erroten asmatu, beraz?

Ez dut lortu martxa onik. Zerbait aldatzen dugun ikustera etorri naiz aurtien.

Fundazioak atera berri duen liburua zer diozu?

Uste dut hemengoan barrenak mugiaraz ditzakeela. Lagun hurkoa zerbait egiten eta gainditzeko laguntzen duzuean Jainkoaren lana egiten ari zara, eta kentzen ari zarenean deabruarena egiten ari zara; hala esan du beti. Mintzartzen banaute horixe bera esan du bihar.

Horrelako lan gehiago ateratzeko asmorik baduzue?

Bai, hori da gure helburuetako bat. Kultura suspertu nahi genuke. Kaskagorriak gara eta jendea herrian erroto behar dugu. Ez dut atzera egin nahi baina norbait lortu nahi dut hemen fundazioa berpizteko. Hemen gauzak mugiarazteko norbait behar dugu.

Biharko jaian egonen zara?

Jakina. Uzten badidate, gainera, esanen ditut esan beharrekoak. Euskaraz ez naiz ariko, baina hitz egin hitz egin dut.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Oloko festetan, ezkil-jotze aztigarria dorrean

Gaur hasten dira Oloko festak, eta urtero lege, afari herrikoian gaupasa egitera geratzen direnak eliz-dorrean igoko dira beste behin ordu bateko ezkil-jotzea egitera; igarotze erritotzat jo genezakeen betidaniko aztura honetan giro berezia da arnasten dena



GAURKOAN DUTE HASMENTA Santo Tomasekoek Ollon. Ez beza pentsa irakurleak hiri gotorretan eguerdi aldean goraki botatzen den txupinazo jendetsurekin, ezpada lanaldia oraino amaitzeke, herriko sarrean zelatari eguna eman duen jubilatutako aspertuxeren batek aupaturiko altxarero bakartiarekin. Haatik, honakoa ere errekarera doan artea da, egun taularekin ez bada, inor ausartzen ez baita botatzera; zaharrek, ordea, atzamarretan suzuria dantzazaziz, aurpegi gartza, gauez ematen dute zerura buruz, behin baino gehiagotan firrinda batean gora joaniko zotza luzangari hatzaren bat itsasita eramanda ere.

Oloko jai-egitaraua ere ez da hiri historikoetan inprimatu ohi denaren pareko, DIN-4 tolestu batek soberaki betetzen baitu iragarri beharrek, baina gutxienez, propagandazko orri-itsaso okaztagarri batean itotzeko ez dago arriskurik, orduz orduko ekin-tzak kausitzea baino, buruz ikastea erosoago izanik, hain da laburra eta eskasa. Alta, ez dezala inork uste urte biz batean ospatzeko adina alrrau daudela Ollon, atsegin baitago ollarigoekin -ollarigo ollotarrren gentilizio zaharra duzu! Oloko festak arraheinki prestatzen dira, maitasun haundiz, eta askotzak ez badira aukeran, herri bakanetan azaltzen ez direnak agurtzeko abadagune badira behinik behin.

Beti ere ostiral honetan izan dute abadagune, abenduaren 21etik irailaren lehenbiziko igandera trukatu zirenetik berderen, eta abuztuarekin batera festagaraia ahitu dela irratitelebistan temaki errepikatzen badute ere, ez da txikia pairatu beharreko konpetentzia: Larrasoaa, Garralda edota gertuagoko Bidaurreta

kasurako. Horregatik agian, gutxi dira bisitariak Ollon, urriak, kontrataturiko musikariak eta ezertxo gehiago. Alabaina jende eskasiak ez dizkie festak abarrikatzen ollarigoei, ausaz, artamendagarriago bilakatzen ditu. Honen adibide ostiraleko beila, gaurkoa alegia.

Aipatu suzuri isolatuaren ostean, isilune lasaia darrai nagusi herri osoan afalordua iritsi bitartean. Ordua behin gainturik, baita afari-legea egirik ere, hauspolariaren inguruan Argiarenekoan bildu dozena pareak afalondoari ekiten dio, ohi denez, eseririk lehenbizi, zutik gero, azkenean makur, harik eta goizeko ordu txikietan, begiak patxaran-laranjek lausoturik eta ezarriak mexikar kantek marrantaturik izanagatik ere, elizarantz abiatzeko une desiratu izan arte. Ez da erraza dorre barruan kiribiltzen den eskailera lorrindu batetik trunbilka igotzea, areago pattarrak eltzetu ordientzako, halaz guztiz, nik dakidala, sekularenan ez da deus gertatu erorikoetan, ezpada azalean arramaskak eta buruan bonboiloren bat. Dorregainera igota zerbait magikoa agitzen da, eta mozkorraldia- ren lurrina aizatuz, nor bedera bere tokian jarriz, sorginketari ematen zaio hasiera.

Beste bazterretan igarotze erritoak zezenen inguruan mantentezen direno, Ollon ez-kilek dute protagonismoa. Dorrean goian zaudelarik eta ez-kilen soinua hasten denean, zerbait berezia gertatzen da,

azalgaitza; lau pertsonen txikiari eragioten dioten bitartean, beste batek geldirik geratzen den ezkil haundiaren mihia dantzazazten du. Ollaran osoan barrena kanpai-hotsak erein egiten dira, ordu inguru irautean duen ezkil-jotze berantiar-edo goiztiar-honetan. Ezkil-mihi altaratutak ixilaraziz gero, errealtatera bueltatu beharra dago, eta txokolate bizkotxeekin hartuta, goatzera baizik ez da geratzen. Oraindik hiru egun falta dira festak bukatzeko, baina niketz, amaitutzat bailiran, hain da asegarri eta gaindiezin dorre gainean emaniko bulta aztigarria.

Oloko dorrea 1612-1620. urte bitartean eraiki zen, eta ordukoak dira hegoalderantz irekitako bi arkuen pean esekirik dauden bi ezkilak. Haundiak 75 arroa eta 24 librak pisua du, eta berriz ere galdatu behar izan zen 1798. ean, ertzean honako izkribua dar-mala: «Siendo Abad Don Manuel de Lozen-Santo Tomas Apostol rogado por nosotros - Año 1798- Ecce vocem domini vincit leo de tribu juda radix David-Bernardo de Mendoza me hizo». 52 arroako ezkil txikerra, berriz, 1790. ean arralgaldatu egin zen: «Santa Barbara ora pro nobis - Año 1790- Ave maria gratia plena-En esta del angel en alto serena». Bi ezkil hauez gainera, ordea, erlojuak dituen beste bi kanpai txikiago aipatu behar dira, 1776.ekoak direnak, orozbat, bazter batean lagata ere, Elondrain eta Zuluberri arteaniko Donamariako ermitatik behiala ekarri zen ezkil ahantziarekin batera.



etorri ahallean

Patziku Perurena



Euskal negarraz

ANDREW BOORDE ingelesak *The fyrst Boke of the Introduction of Knowledge* liburua idatzi omen zuen 1542an, Europako erreinu eta lurralde gehientsuenen ikuspegi axaleko eta llaburra emanez, eta hirulau pasartetan herri bakoitzeko topikorik ezagunenak aipatuz.

Liburuko XXXI. kapituluari, bereziki Euskal Herriaz ari dela, honela dio: «Alderdiotan, gizon, emakume edo haur, edozein hiltzen dela ere, gorpua hilobiratzekoan garrasika ematen diote negar lantuari, eta baita lurperatu ondoan ere. Zergatik hil zara? Ez al zenuen hemen lagun onik? Ez al zinen urte zilar, ondasun eta jantzi ederren jabe? Zergatik hil zara? Honelaxe galdetuz eginez segitzen dute antsika. Egunero etortzen dira gainera elizara, eta zapi zuri batekin estali hilobia, eta gainean ogia, ardoa eta kandela piztuak ipintzen dizkiote gorpuari. Gero otoitz egin, eta berriz ere betiko galdera harrigarriak egiten hasten dira nigar zotinez elizbarren guzia aldean paratzeraino. Eta ahaidekoa hil zela zazpi urte izanagatik ere, igoal segituko dute aldarriok egiten. Eta ohitura melenga hau Bizkaian, Kastillan, Españan, Aragoien eta Nafarroan berdintsu ematen da».

Euskaldunok ordea, negar zailleko jende noblea omen gara. Behin Orixeren iloba bati aditunio, euskaldunok espanturik gabe egiten omen ditugula heriotz puntzioak, ez Andaluzian bezala negar dunduriz eta antsiz, lotsagarri emateraino. Hori hala balitz, ez dut uste, heriotzak gure artean horren aixe espektakulu bihurtuko liratekenik.

Negarra noski, irria bezalaxe, jendearen kultura eta izakerearen adierazgarri da. Michel de Montaignek ez bide zuen Amezetako Fernandok bezala far edo negar egin. Izanez ere, zenbat eta moralina estuagoan hezi, orduan eta irriberago eta ne-

garberago jendea. Ezin bestela izan.

Igertzen diot, halare, J.M.Aranaldek zertu esan nahi zuen. Baina demagun, andaluzismoa, esana den bezala, jitanismoa dela gehien bat. Eta horra non, Espainiako folklore nazionalistak (eta kasik kultura osoak) natural onartu eta aupatu duen jitanismoa, gaitzetsi eta estali egin du Euskal Herriko folklore nazionalistak.

Horratx jendaje berbera, han aupatuz, hemen umilatuz, bi nazio eredu, elkarren etsai, sortzera etorria. Negargarriagorik! Euskal eta andaluz folkloreaken artifizea, funtsean beratsua (semita jende komiko sentimentaloidea) izan dela ikusteko, ez baita antropologian doktore izan beharrik. Haien Romero eta Jimenez, gure Iturbide edo Zabala bera dira, eta negar iturri berbera dute, nahiz hizkuntza eta lurralde ezberdinetan etxekotu izan.

Ongi sumatua dizut, kontu biltzen nabilela: herri musikan, bertsokantarrizan, kontukantarrizan, kuranderitzan, sorginkeritzan, sineskeritzan eta orohar herri literatura guzian, kasta horietako jendajea nabarmen-tzen dela. Eta nola ez, baita herri umorerik eta herri negarrik espantuzkoenean ere. Etxetik hasita diot hori.

Eta ez dut uste euskaldunon artean gutxiengoa denik; alderantziz, euskarak eta euskal folkloreak bizienik iraun duen herrietan uste baitut dela ugarien kasta horietako euskal jendea. Nik benpe, nekez sumatzen dut, irri eta negar gorri fin xuhurreko baskoi mitiko haren arrastorik inon, eta halako graduak gizatasun zaildu batek inorengadik bereizten duela esateko modukorik are gutxiago.

Egia esan, euskal zera guzietan, lotsa ematerainoko negar dunduri zuria besterik ez dut sumatzen. Gurea ez bada negargarritza, zer ote semita euskaldunena? Bai, ingelesa 1542an ere ahobero, baina, euskaraz «harriak ere negar egin lezake» Joxemari.

Ziria

• Motxorrosolo •

Neurgailuak

VIAGRAREN LEGALIZAZIOAN GEHIEN NABARMENDU DEN KONTSELARIA ELE-arina oso. Azkonak ez zaizkio bizkarrean kamustuko. Botikazoa dela eta egin adierazpenak arrazismoaren mugakoak, kontu berdina beste batzuen ahotsetan Rh madarikatuaren inguruko eztabaidaren parekoak. Dena zaie zilegi, neurtzeko bi zarta baitira, batzuekako bigunak oso.

Jesus Perez Boregan

Eskultorea

«Gutxiengoaren estalpea da kultura»

Jesus Perez Boregan eskultoreak

Jaia eta kultura izenburua

daramaten bi eskultura ezarri ditu bere sorterrian, Cintruenigon. Jaia ez bezala kultura aterpe moduan gutxi hartzen duten ustekoa bada ere, biak uztartu nahi izan ditu irailaren 8an inauguratuko den Kaputxinoen plaza berriko artelanean.



MIKEL SAIZ

BI METROTIK GORA DIREN ESKULTUREN ondoko eserlekuan jarrita, luze mintzatu da Boregan. Bi azken urteok Tudejen kultur proiektuan murgildurik egon da. Eta orain, mihiarekin ez ezik, tailerrean zituen proiektuen bidez ere solastu nahi du.

■ **Datorren asteartean inauguratzen dituzu *Jaia eta kultura* izena daramaten bi eskultura herriko Kaputxinoen plazan. Zergatik izen horiek?**

Garai batean Kaputxinoen komentua eta Cintruenigon zeuden bi eskolak egon ziren hemen. Bestalde, egurrezko zezenplaza bat eraikitzen zen abuzturo festetan, eta ekitaldi garrantzitsua zen herrian. Kaputxinoen Komentua bota zenean, dena desagertu zen. Hori dela eta, bi ideia horiek irudikatu nahi izan ditut jarri ditudan bi pertsonailetan. Liburu bat esku artean duen gizakiak pentsatzailaren eta irakurlearen irudia gogoratzen du. Garai bateko eskolak islatu nahi izan ditut, haiek emandako hezkuntza. Ez bakarrik eraikin hura, baizik eta kulturak irudikatzen duen guztia. Egur batzuetan eserita dagoen pertsonaia da beste lana. Bi kontzeptu islatzen ditu: aurrez aurre begiratuz, gero lepora loturiko jaizapi bat darama, baina zeharka so egiten badiozu moje baten kapelera du soinean. Horrela gogoratu nahi izan dut plazaren aurreko historia: kaputxinoak eta zenzenplazaren eraiketan erabiltzen ziren egurrak.

■ **Kultura eta festa eskutik doaz, beraz?**

Ez dut uste. Islatu nahi dudana kontzeptuan bai, baina gutxiengoaren estalpea da kultura. Are gehiago, kultura kasik agertu ere egiten ez den telebista bezalako hedabideak ditugunean. Kultura eta festa erabat uztartuak egon daitezke baina hemen nahiko bereizirik doaz;

soslaia

Jesus Perez Boregan Cintruenigon jaio zen, duela 47 urte. Aitaren izengoitia hartu zuen izen artistikorako, Boregan hain zuzen. Batxilergoa Garesen eta Salamancan ikasi eta gero, hamazazpi urterekin hasi zen tailagile ikasle moduan herriko lantegietan eta arte eskoletan. Aldi berean, trebatzen aritu zen Corellako Arte Aplikatueterako Eskolan. 1982an paratu zuen bere lehen erakusketa, eta geroztik hainbat egin ditu bakarka zein taldeka.

Orain erakusketak prestatzen nahiko lan badu ere, beta hartzen du aisialdiarako eta familiarekin egoteko. Fiteroko bainuetxeak ondoan dituen arren, lasaitasuna, beste deusetan baino lehen, egonean aurkitzen du. Bidaiek egitea oso gustuko du, eta lanerako egiten dituenak aisialdirako ere aprobetxatzen ditu. «Autoa hartu eta errepidean gozatu egiten dut. Toki berera iristeko bide ezberdinak aurkitzen saiatzen naiz. Horrela paisaia berdina ezberdin aurkitzen duzu», dio.

Eskulturak egiten jarraituko du etokizunean. Dena den, Tudejen kultura zentroak ematen dizkion buruhausteak gutxi nahi lituzke. «Arteak eman dit dudana guztia.

Ez naiz kexatzen, baina Tudejeneren aldeko apustuak buruhauste asko ematen dizkit. Noizbait asentatuko garela koan nago», bukatu du.

Nafarroako beste toki batzuetan kultura eta festa batera doaz baina hemen oso sakabanatuta daude.

■ **Ohikoa ez den materiala, harri artifiziala, aukeratu duzu zure lana egiteko.**

Bai. Eskulturak neurri handikoak dira: bi metro eta hamabost zentimetro garai dira eta 90 x 90 zentimetroko diametroa dute. Gainera, bakoitzak 2.500 kiloko pisua du.

■ **Normalean material hori erabiltzen duzu zure lanerako?**

Ez, batzuetan bakarrik erabiltzen dut. Nahikoa ezagutzen dut, gaztelu batzuetako hegatzak zaharberitzea egokitu zaidalako, eta beste eskultura batzuetan ere erabili dut. Ongi egokitzen da nire nahietara. Orain erretxinarekin ari naiz lanean. Nahiko ongi ezagutzen dut material hori eta hemengo artisautza industrietan asko erabiltzen da. Egun eskultura asko egin ditut erretxinekin baina asko landu ditut egurra, burdina eta harri naturala.

■ **Fitero ondoan Tudejen kultura zentroa ezarri duzu. Zer egin nahi izan duzu han?**

Alhamako Bailaran kokatua dago. Parean duen dorre arabiar baten izena hartu du egoitzak. Fitero eta hango bainuetxeen artean, hain zuzen. Bainuetxeak gertu daude eta urtean zehar batez ere Euskal Herriko hainbat jende hurbiltzen da sendatzera, atsedean hartzera eta denbora pasa. Asmo handizalea da: kultura, artea eta turismoa uztartu nahi izan ditut toki berean.

«Nafarroako beste toki batzuetan kultura eta festa batera doaz, uztarturik egon daitezke, baina hemen oso sakabanatuta daude»

Urte bat daramagu martxan eta hori guztia errotzea kostatzen ari da. Jendeak ez du hain erraz onartzen, berria da zonaldean. Ekimen pribatua da, eta esfortzu handia egin dugu. Hain berritzailea izanik, ez dut inolako dirulaguntzarik ukan. Eskualde guztiak turismoa erakarri eta zabaldu nahi du. Horretarako gune bat jartzen dut eta gutxiengonartzen dutenak ingurukoak bertakoak dira. Ez dago elkarlanerako gogorik; eskualdeak badiu baliabide turistikoak eta kulturalak, baina ez dut inoren laguntzarik izan. Udalek ez dute interesik izan eta paso egin dute. Egia esan, ez dut ulertzen, ideia oso interesgarria baita.

■ **Zaharberritzeak egin dituzula ere aipatu duzu. Lan egiteko beste modu bat da?**

Egun artetik bizitzea zaila da eta ezin diozu deusi muzin egin. Jaurregiren bat edo beste zaharberritzeko esaten badidate, onartu egiten dut. Dena onartu izan dut, alor asko lantzen ditudalako. Mandatu asko egin behar izan ditut eta horrek mantentzen laguntzen dizu, erakusketak eta arte salmentak ez baitira asko izaten. Arte gutxiengo bati interesatzen zaio eta erostea kosta egiten zaio. Gainera, artea eskaintzen duen jende gero eta gehiago dago. Duela hamabost urte, hiru erakusketa zeuden Nafarroan, eta orain egunero badiotuz 30. Hortaz, bizitzea zaila da. Hamazazpi urtetatik zizeilu, harri eta egur tartean ibili naiz, batzuetan hobekiago, besteetan okerrago.

■ **Zein asmo dituzu etorkizunerako?**

Tudejeneren abiatzeko denetarik egin behar izan dut eta bi urte egon naiz eskulturarik egin gabe. Orain berriro tailerrean sartu eta erakusketak prestatzen ari naiz. Urriaren 17an dut bat Iruñeko Azul galerian. Hil horren bigarren hamabostaldian Valentziako Inter-art azokara noa, eta ondoren Estrasburgora.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Pello Goñi

Barneratze

GAUR ENE BARNEKO INDIGENA MINTZO zait: «Ze habil beti hitzak idazten eta idazten», erran dit. «Ez al dakik idatzitako hitza menperatu eta zapaltzeko tresna razionalizatzailea bertzerik ez dela? Guk ez diagu sekulan gauzak idazteko beharrik izan, mintzoa aski izan diagu-ta; geure kultura ahozko tradizioan oinarritu baituk beti. Idatzitakoak botere lanabesak dituk, gure herria menpean jartzeko». Pentsakor utzi naute ene barneko indigenaren hitz latzek.

Ele horien oihartzuna oraindik bu-ruan bueltaka nuelarik, ene barneko gizon greko-latino ulerkorra mintzo zait: «Tira, motel, ez diat deus garbitzaileen aurka, baina ezagupena idatzirik boterea bada, eta hala da, erai-ki ezak kontraboterea indigenen ikuspegiaren alde hebre gauzak idatzirik. Zeren eta ahozkoa eta idatziz-koa elkarbizitzan egon daitezkek. Eta, ez atzendu, idatzera menperatzen duenak agintea dik».

Gaur ere, ene barneko gizon menperatzailea —greko-latinoa hau ere— mintzo zait, besteen hitzak ukatuz. «Integrazioa! Integrazioa duk bide ba-karra! Kultura tiplak ez baitituk kul-turak, sasi kulturak baizik. Sar hadi behar bezalakoa kultura handi batean eta ahantzi herriko gauzak, edo gorde itzak herrian hagoenerako, baina ez ibili beti hebre zillborrari begira, au-rrerapen guztiak herri garatuenen-gandik etorri baitituk-eta».

Orain hiruok norgehiagoka dauzkat ene barnean, nor bere alderat ti-raka. Zer egin behar diat? galdetu diot kale kantoiko udaltzainari, eta baita izkinako harakinari ere, eta bi-denabar Barañaingo astearteko azo-kan dabilzan saltzaileei, eta Xabie-rreren jaitsierako bi putari, eta hiriko intelektualei, eta «oso» euskalduna den bati...

Nork bere erantzuna eman dit, bai-na ez da inondik ere adostasunik izan. Hortakoz, badaezpada, nik menperatzaileen mundu honetan se-gituko dut indigena izaten; hori bai, greko-latinoen eragin nabaria duena.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Zizur Nagusia:** Garrasika, El Conde Rata eta Situacion Critika taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, gauer-dian, Erreniaga parkean.

► **Zizur Nagusia:** Afrika Lisanga-ren emanaldia izanen da ostegunean, 22:00etan, Alde Zaharreko frontoian.

ZINEMA

► **Barañain:** Wallace & Gromit pelikula pantailaratuko da, gaur, 22:00etan, lakuan.

ANTZERKIA

► **Zizur Nagusia:** Tirri-tarrak Sow lana taularatuko du datorren astelehenean, 22:00etan, Erreniaga parkean.

► **Mendaza:** Sambhu taldeak Lenaren sekretua lana oholztaratu-ko du bihar, frontoian, 21:30etan.

ERAKUSKETAK

► **Lekunberri:** Elena Asinsen lanak biltzen dituen erakusket-a dago zabalik irailaren 13ra arte Mintxausenea Kultur Etxean.

► **Iruñea:** Mikel Saizen argazki lanak, Ana Casasen margoak eta Eduardo Bren eskulturak ikus daitezke Gotorlekuko Arma Aretoan hilaren bukae-ra arte.

BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Sex-Haizegoak Testu Erotikoen IV. Lehiaketa anto-latu du. Partehartzaileek he-mezortzi urtez goikoak izan beharko dute. Paperean ez ezik, lanak disketean ere igo-rrri behar dira. Helbidea: Sex Haizegoa, Barañain Etorbi-dea 29, 31008 postakutxati-la, Iruñea. Informazio gehia-go 948-17-72-99 telefonon.

► **Agoitz:** Bilaketa kultur taldeak Agoitz Herria nazioarteko es-kultura lehiaketarako oina-riak ezagutarazi ditu. Ira-bazleak milioi eta erdi pezeta irabaziko ditu. Obrak urria-

ren 8a arte eraman daitezke, ondoko helbidera: Francisco Indurain kalea 12. Agoitz (Nafarroa). Informazio gehia-go nahi izanez gero, 948-33-65-98 telefonora deitu.

► **Leire:** Monasterioan, gregoria-noz kantatutako bezperak entzuteko parada dago. Oste-gunetan izan ezik, 19:00etan izaten da kantaldia. Ostegu-netan, 19:30etan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Zertan pentsatzen du kuenko batek Euskal Herri-
tik kanpo dagoenean? Emakumeengan?
Galeperrengan? Erreguetan? Auzolanetan?

Bagurri Maitea

Kokoerriko txakolina

